

Ikasitakoaren koaderno eta/edo egunerokoa ebaluatzeko errubrika

Ebaluatutako ikaslea edo taldea: _____

Errubrika betetzen duenaren izena: _____

MAILA	4 Bikain	3 Oso ongi	2 Nahiko	1 Gutxiegi
Informazio kantitatea	Landutako gai guztiak eta galdera denak gutxienez 2 esaldi erabilita erantzun ziren.	Landutako gai eta galdera gehienak gutxienez 2 esaldi erabilita erantzun ziren.	Landutako gai eta galdera gehienak gutxienez esaldi bat erabilita erantzun ziren.	Gai eta/edo galdera bat edo gehiago erantzun gabe daude.
Antolaketa eta ordena	Apunteak modu zeharo ordenatuan eta kontu handiz idatzita eta antolatuta daude.	Apunteak modu irakurgarrian idatzita daude, eta nolabaiteko antolaketaekin.	Apunteak idatzita daude.	Apunteak gelakideen edo irakaslearen laguntzarekin idatzi ziren bakarrik, edo idazteko gogorarazi zenean.
Idazketa	Ez dago gramatika, ortografia nahiz puntuazio akatsik.	Ia ez dago gramatika, ortografia nahiz puntuazio akatsik.	Gramatika, ortografia nahiz puntuazio akats batzuk daude.	Gramatika, ortografia nahiz puntuazio akats asko daude.
Informazioaren kalitatea	Informazioak galdetutako gaiarekin lotura nabarmena du, eta bigarren mailako hainbat ideia eta/edo adibide barne ditu.	Informazioak galdetutakoaren alderdi nagusiei erantzuten die, eta bigarren mailako ideia eta/edo adibide 1-2 barne ditu.	Informazioak galdetutakoaren alderdi nagusiei erantzuten die, baina ez du zehaztasunik eta/edo adibiderik ematen.	Informazioak lotura txikia du galdetutako gaiarekin, edo batere loturarik ez.
Taldean landutako gai eta galderak	Galderen inguruan taldean sortu den eztabaida islatu da, argudio diferenteak islatu dira, eta guztiaren gaineko ondorioak atera dira.	Galderen inguruan taldean sortu den eztabaida eta argudio nagusiak islatu dira.	Galderen inguruan taldean eztabaida sortu dela adierazten da, eta argudioak ia ez dira lantzen.	Ez da islatzen proposatutako gaien inguruan taldean eztabaidarik egon denik.

